



Euskarazko liburu zaharrek irakurle berririk bai?

 PERU IPARRAGIRRE  DANI BLANCO



Euskarazko literaturaren tradizioa hautsia eta ezezaguna da oro har. Azken hamarkadetan idatzi denak nolabaiteko egonkortasuna lortu duela dirudi hala ere. Garrantzizko elementua falta da, ordea: egonkortu aurreko garaiko literatura eskuragarri jartzea. Lan bikoitza litzateke: liburuak berrargitaratzea eta haietako hizkuntza berrikustea.

*Egun zaharrak joan ta
berriak etorri,
gaur poz bihar oinaze,
noiz burni noiz zilar
zenbaitek hondamendi
baitute katea
lore-sorta bekizu
goi-muinoak zehar!*

Ia mende osoa bete da Verdes-Atxirika argitaldariak Xabier Lizardi (Zarautz, 1896 – Tolosa, 1933) poetaren hitzok zekartzan liburua plazaratu zuela, baina argitaratu ziren moduan ezin idatzi gaur; nola jartzen zaio ordenagailu honetan “r”-ri tileta? Inprimatzean ez luke arazorik emango? Ez dira alferrik pasa hamarkadak, euskararen grafiaren bilakaerari begiratzea besterik ez dago.

Susak berrargitaratu zuen iaz Lizardiren *Bihotz-begietan*, ortografia estandarizatuta. Gaurkotze horrez gain, orri

arteak populatzen dituen Zuhar Iruretagoienaren esku-hartze artistikoa eta Anjel Lertxundiren hitzaurrea dakartza liburuak. Aitzakia ezin hobea ematen du klasiko honen berrargitalpenak literaturazalea kezkatu beharko lukeen gai bati heltzeko: ba al dute liburu zaharrek irakurle berririk? Eskura al daude euskarazko literatur tradizioko lan esanguratsuenak? Eskura liburuak zein eskura testuak, liburu horietako asko argitaratu zirenetik hona dezentente aldatu baita euskarazko idazkuntza. Aldatu baino, batu, estandarizatu. Koldo Izagirrek dio: “Orduan idaztea mendia zen, gaur ordua dugu”. Auzia da, ordea, orduko mendi horiez gure ordoki hau nola aberastu.

BIHOTZ-BEGIETAN ESKUETAN

Liburu garrantzitsua da *Bihotz-begietan*, zalantzarik ez dago horretan. Garrantzitsua, Lertxundik hitzaurrean dioen bezala, poesiagintzan izan duen

eraginarengatik, sortu zen testuinguruan aztertuz gero duen bakuntasunagatik. Lizardik 1919 eta 1931 artean idatzitako hemezortzi poema biltzen ditu, poemagintza modernoa eta lirikoak erakusten du, garai hartan euskaraz idazten zenarekin hausten duena. Gabriel Arestik esan zuen, “pentsatuko dut Lizardik urrezko orri bat eskribitu zuela euskal literaturan, guztirik ederrena, guztirik distiratsuen. Haren izena munduko abangoardian aurkitzen da”.

Eta hori guztia horrela izanik ere, azken urte luzeotan deskatalogatuta egon da liburua eta ez da erraza izan ale fisikorik eskuratzea, harik eta Susak berrargitaratu duen arte. Hala dio Lertxundik hitzaurrean: “Gaurko irakurleek ez dute Lizardiren *Bihotz-begietan* irakurtzeko aukerarik; ez dute izan edizio berri, egokitu, zaindurik. Euskara batuan. Literatura argitaratzeaz arduratzen den bilduma eta katalogo batean. Gaurko poema liburu eta narrazioen konpainia noblean. Egungo irakurle-go konbentzionala gogoan izango duen edizio popular eskuragarri batean”.

Zergatik izan da horrela, baina? Hainbat galdera botatzen ditu airera Lertxundik: “Zabarkeria da motiboa?

Informazio eza? Kultura jasoari diogun begirune ez batere jaso? Lizardik duen idazle zailaren fama? Interes falta, axolagabekeria, ezjakintasuna? Eragile kulturalen proiektzio miopea

Gaurko irakurleek ez dute izan Lizardiren *Bihotz-begietan* irakurtzeko aukerarik; ez dute izan edizio berri, egokitu, zaindurik

argitaratu beharreko liburuak programatzerakoan? Denetarik egongo da zerbait”. Denetarik horren emaitza: erreferentziazkoa den lan baten edizio berri, egokitu

eta zaindurik irakurle berrien eskutara ez dela iritsi Zarauzko Udalak poetaren 125. urtemuga omentzeko horretarako dirua jarri duen arte. Izan ere, ez da lan makala edizio berri, egokitu eta zaindu hori osatzea. Josu Landak egin du Lizardi eguneratzeko lana, poetaren ortografia zuzenduz eta darabiltzan aditzi trinko berezienak azalduz. Susaren edizioak jatorrizkoaren facsimilea dakar, bi bertsioak erraz alderatzeko. Ortografia da deigarriena, irakurketari enbarazu gehien egiten diona. Ulertu ulertzen baita, Lizardiren trinkotasuna eta lexiko hautaketa gorabehera.

LITERATURA LIBURUETAN DATOR

Urterik urte, uzta ederra utzi ohi du euskarazko literaturgintzak, Durangoko Azoka amaitu osteko zerrendak errepasatu besterik ez da egin behar. Liburu mordoxka bat urtero. 2020an, esaterako, lehendik argitaratu gabeko 30 nobela pasa eta ia beste hainbeste poema-liburu, Juan Luis Zabalak Euskal Literaturaren Apalategian egin-dako zenbaketaren arabera. Horien



artean batzuk besteak baino askoz ere irakurriagoak izan dira, beste batzuek eman dute zeresana, baina ia bi urte pasa diren honetan oihartzuna gero eta ahulagoa da, beste batzuen izenburuak, aldiz, erabat oharkabea pasa direla dirudi.

Liburu horietako batzuek arrastoa utziko dute, lehen tirada txiki geratu-ko zaie eta berriz inprimatu beharko dira, agian beste hizkuntza batzuetara itzuliak izango dira, edo film batean moldatuak. Auzia da liburu batzuek iraungo dutela, bizitza berriak izango dituztela, eta beste batzuek, aldiz, ez. Ez baita erraza denboraren joanari, eta batez ere liburu berrien etorrerari, aurre egitea, gutxi irauten dute liburuek erakuslehoetan, dendetakoetan nahiz prentsakoetan. Gero eta liburu gehiago argitaratu, gero eta urriagoa da elkarri uzten dioten arnasa.

Egin dezagun urte batzuk atzera. Erraz bilakatzen dira liburuak aurkitz, liburu zehatz batzuk ez badira, urtero Durangoko Azokan, esaterako, edizio berean erosten eta berrerosten direnak. Egin dezagun are atzerago, urtean argitaratzen ziren euskarazko liburu guztiak irakurtzeko aukera zegoenera. Orduan ere irakurleak gutxiago ziren, noski, baina hori beste kontu bat da. Are atzerago eginez gero, muga lausoak dituen mugarri bat topatuko dugu: euskararen estandarizazioa, euskara batuarena.

EUSKARA BATUAREN ALDAPAK

1964an Baionan, Txillardegi sustatu-tako bileran lehenik eta 1968ko Arantzazuko Batzarrean gero, euskara estandarizatzeko prozesua bide onean jarri zen. Bide onean baina ez errazean, baina hartu ziren erabaki batzuk, eta batez ere hainbat argitaratzailek eta

idazlek egindako hautuak zabaldu zuen euskara batuak idatzizkoan behar zuen tokia. Estandarizazioa prozesu bat da, ordea, eta ez zen berehala egonkortu egoera. Ikastolen ugaritzeak eta Frankoren heriotzaren osteko euskararen instituzionalizazioak – EHUren, ET-Bren eta abarren sorrerak – ere lagundu zuen horretan. Literaturgintzan ere ez da bide erraza izan Izagirrek aipatzen duen ordokirainokoa, urte luzez luzatu da argitalpenetan euskara batuaren arauen arabera idazketa eta zuzenketa orokortzea, Euskaltzaindiak arauak eta argibideak eman eta idazleek eta editoreek horiek erabili ahala.

Errealitatea da euskarazko liburuek, oro har, gutxitan izaten dutela bigarren bizitza bat

Tarte horretan guztian argitaratutako literaturari erreparatuz gero, eta batarren eta bestearen aparteko apetak gorabehera, hizkuntza idatziaren bilakaera hori ikus daiteke. Esan daiteke azken hogeita hamar urteotan egonkortu dela kontua, euskarazko literatur sistema modernoaren nolabaiteko egonkortzearekin batera. Zer gertatu da, baina, tradizio horrekin guztiarekin? Non dago eskuragarri? Eten batzuek –36ko gerrarenak eta frankismoarenak– erabat baldintzatzen dute euskarazko litera-

turgintzaren transmisioa, etena da hala-beharrez. Hizkuntzaren estandarizazio berantiarra ere ez du auzia samurtzen. Zer esanik ez oraindik orain zerumugan aterabide errazik ez duen euskararen diglosia egoerak. Luze jarrai genezake trabak zerrendatzen, Lertxundik literatur munduko keriekin egin bezala. Aleka egin dira ahaleginak tradizio horretako egileak gaur egungo irakurleei ekartzeko, eta “gaur egungo” esatean modu jarraituan esan nahi da, erreferentziazko lanak erreferentziazko izan daitezen haien argitalpenetik edo berrargitalpenetik urte gutxi batzuetara ere. Elkar, Alberdania eta Erein argitaletxeetan topa zitezkeen zenbait klasiko modernoren berrargitalpenak, baina horiek ere honezkero gutxi eta zaharkituak geratu dira, ez dira berriak. Susak mende honen hasieretan argitaratutako XX. Mendeko Poesia Kaierak bilduman berrogei poetaren bildumak argitaratu ziren, ezinbesteko kanona osatzen dutenak, baina ortografia eguneratu gabe, eta bilduma egun ez dago ia zirkulazioan.

Errealitatea da euskarazko liburuek, oro har, gutxitan izaten dutela bigarren bizitza bat. Berrargitalpenerako ohiturarik ez dago eta literatur sistema frantsesean eta ingeles-estatubatuarrean ohikoak diren poltsikoko edizioak ez dira existitzen. Ohitura falta horrek ere ortografia bederen berrikusi behar izateko aitzakia gutxiago edukitzea dakar; hala ere, berrargitaratzen diren lan batzuetan ez da lan hori egiten, irakurleen kalterako.

EGOKITZAPENA?

Koldo Izagirrek dio kontuz erabili behar dela “egokitzen” hitza. Dioenez, ortografia gaurkotu eta begi-bistako akatsak baizik ez lirateke zuzendu behar. Idaztea mendia zeneko garaieta-



Beasaingo Ikastola
HERRI ONURAKO KOOPERATIBA

Aurkezpenak
HAUR HEZKUNTZA: **urtarrilak 17**
DBH: **urtarrilak 18**
15:00etatik aurrera talde txikietan
MATRIKULA ZABALIK: **urtarrilaren 28ra arte**

943 889 617 · www.beasaingoikastola.eus · beasain@ikastola.eus

25 urtez Beasain euskalduntzen

Ikastola
Ikastola
Ikastola

tik ordokia direnekoetara dagoen alde literarioa ere badela azpimarratzen du. Zuzendu behar direla lan horiek, baina batez ere editorerik eta ia aurreirakurketarik gabe, iritzi profesionalik gabe, argitaratu zirelako. Bakartia behar zuen euskarazko literaturaren idazkuntzak, eta egile horiek bakarti jarraitzen dute orain, ia irakurlerik gabe.

Lan sistematikoa izan behar luke, irakurle berriei ekarri beharreko liburuen zerrenda osatu eta argitalpen planak gauzatzeko

“Egia izango da gure literatura murrizta dela, baina gure murriz hori irakurri gabe daukagula iruditzen zait”

Koldo Izagirre

Aleka berrargitaratu dira lan batzuk, Poesia Kaierak gisako bilduma berezitu-tuetan beste batzuk, baina beste modu batera izan behar luke. Lertxundik *Bihotz-begietan*-en hitzaurrean dioen bezala, edizio popularrak behar dira. Izagirrek azpimarratzen du ideia hori: urteko produkzioarekin batera egon beharko lirake lan horiek, ez apartean.

Lan sistematikoa izan behar luke, euskarazko literatur tradizioaren errepasoa egin beharko litzateke, irakurle berriei ekarri beharreko lanen zerrenda osatu, argitalpen planak egin eta gauzatu. Adibide bat izan daiteke



SHU OTERO

Hauspoa bilduma, Antonio Zavalaren Auspoa bildumatik edaten duena. Sebastian Salaberriaren *Neronek tirako nizkin* (1964) nobelaren berrargitalpenak eman zion hasiera bildumari, euskara batuaren eredura ekarrita argitaratu zuten, “irakurle gazteek eskurago izan dezaten euskal literaturaren klasiko hau”. Pello Esnalek egindako oharretan argi adierazten da zein izan ziren Salaberriaren lana euskara batura ekartzeko jarraitutako irizpideak eta egindako hautuak.

ORAINKERIA

Gauza bat eta bestea, errealtatea da liburu zaharrek ez dutela irakurle berririk. Batetik, ale fisikoak ez daudelako eskuragarri. Bestetik, dauden testuen bertsioak ez direlako egunerokoan baliagarri. Beste eztabaida bat da egokitzapenaren mugak non dauden, baina edizio berritueta gutxienez ortografia eguneratu beharko litzateke. Izan ere, tradizio hori guztia, edo horren guztia- ren ale erakusgarri batzuk eskura eduki ezean, azken hogeita hamar urteei gero eta lotuago dagoen kanon literarioa ari da geratzen euskal literaturan, sustrai laburrekoa.

Adibide gisa zirkulazioan behar luketen lanen zerrendaren hasiera bat

eskatu diogu Koldo Izagirreri, eta hark prestuki erantzun: Xabier Kintanaren ipuingintza, Arantza Urretabizkaiaren poemen bilduma, Jean Baptiste Elizanbururen *Piarres Adame* nobela, Anjel Lertxundiren *Hunik arrats artean* eta *Goiko kale*, Jose Antonio Mujikaren *Itzalak*, Elkarrek 1984ean argitaratutako Jon Miranderen *Gauaz parke batean* ipuinen bilduma, Joxean Muñozen *Parentesiak (eta abar)*, Imanol Murua kazetariaren *Suetena Belfasten* eta *Palestina zauritua* kazetaritza liburuak, Xabier Lizardiren artikulua hautatuak, Txillardegiren ipuinak, Joxe Austin Arrietaren *Abuztuaren 15eko bazkalondoa*, Antonio Valverderen *Ibar ixilla*, Bernardo Atxagaren *Etiopia* poema-liburu dagoeneko mitikoa eta *Ziutateaz* liburutxo ezezagunak... Zerrenda posible baten zatia baino ez da, zati txiki bat. Horrela dio Izagirrek: “Zubitegiko A eta M multzoetan begira atera ditut hauek (Lizardi eta Txillardegiren buruan neuzkan). Horiak publikatutakoak dira, noski. Baina bada beste lan interesgarri asko prentsan (artikuluak, kronikak). Esan ohi da gure literatura murrizta dela, ez dela asko idatzitzi... Egia izango da noski, baina gure murriz hori irakurri gabe daukagula iruditzen zait”. ●